

Ongi etorri Soraluzera



SORALUZЕKO
UDALA



ONGI ETORRI!	3	ETXEBIZITZA	15
KOKAPENA	4	BERDINTASUNA	16
HISTORIA	5	OSASUNA	17
HERRITARREN HARRERA BULEGOA	6	ENPLEGUA	18
HIZKUNTZA	6	GARRAIOA	19
HEZKUNTZA	8	HERRITARREN SEGURTASUNA ETA	
KULTURA	10	JUSTIZIA	20
KIROLA	12	DEBABARRENEKO MANKOMUNITATEA	20
HAUR ETA GAZTEAK	13	PARTE HARTZEA	21
GIZARTE BALIABIDEAK	14	MAPA	22

ONGI ETORRI!

Soraluzeko udalaren izenean, ongietorria ematen dizuet.

Soraluze herri ireki, dinamiko eta parte hartzailea da; hemen bizi diren pertsona guztiak soraluzetarrak dira, haien jaiotza lekua edo jatorria zeinahi ere den.

Esku artean duzuen Gida honen helburua Soraluze hobeto ezagutzera laguntzea da. Gida honetan gure udalerriri buruzko mota guztietako informazio interesgarria aurkituko duzue: historia, kokapen geografikoa, hizkuntza, zerbitzu eta baliabideak, etab.

Espero dut zuentzat erabilgarria izatea eta Soraluzeren bizitzan modu aktiboan parte hartzera animatzen zaituztet.

Ongi etorri eta laster arte!

Iker Aldazabal
Soraluzeko Alkatea




KOKAPENA

Soraluze Euskal Autonomia Erkidegoan dago, Gipuzkoan. Bertan, 700.000 pertsona inguru bizi gara. Gipuzkoak eskumen propioak ditu eta Foru Aldundia da organo gobernua. Hiriburua Donostia da.

Soraluze-Placencia de Las Armas Debabarrena eskualdeko udalerria da. 14,1 km² ditu eta 3.900 biztanle inguru ditu. Mendi artean, orografia malkartsuan kokatu dago. Deba ibaiak zati bitan erdibitzen du herria, itsarorantz egiten duen bidean zeharkatzen duen Debabarreneko lehen herria izanik.

Soraluzek Elgoibarrekin egiten du muga ipar eta ekialdean, Bergarekin hegoaldean eta Eibarrekin mendebaldean. Udalerriaren mutur biak Mugarri-Ondarra, Bergara aldean, eta Maltzaga dira, Eibar eta Elgoibarrekin mugan azken hau.



HISTORIA


1343an Gaztelako Alfontso XI.ak hiriaren konstituzioa ofizialdu zuen hiri-gutuna emanez eta Soraluzeri Placencia izena ezarriz.

XV. mendean, gure hirian izugarriko garrantzia hartuko zuen iharduera bat hasi zen enaltzen eta hain izan zen garrantzitsua, ezen abizentzat hartu zuen: arma industria.

Bistakoa da, gure hiriak dituen ezaugarri fisiko bereziak lagungarri izan zirela arma-tailerrak kokatzeko balio izan zuten sutegiak sortzeko. Armagintzan gure udalerria ezezik, ondoko herriak ere aritu ziren. Dena delarik, XIX. mendera arte behinik behin, gure hiria izan zen eskualdeko arma-gunerik nagusiena.



XIX. mendeko krisialdiak apenas eraginik izan zuen Soraluzen, arma-industria sendo eta modernoa baitzen bertakoa. Horren lekuko da "Euzcalduna" lantegi handia



XX. mendearen bigarren hamarkadakoak dira Soraluzen torlojugintzaren lehen aztarnak. Berau izango du aurrerantzean herriak diru iturri nagusia, apurka-apurka armagintzari tokia jenez; eta beronek emango dio egun oraindik herriak ezaugarri bezala duen industria izaera. Jatorriz arma-enpresa zirenak, torlojuak egiten hasi ziren. Enpresa hauek ikaragarri hazi ziren 50. eta 60. Hamarkadetan, orduan estatutik etorritako pertsonak bertan aurkitu zuten lana.

Ingurua ikaragarri gogor astindu zuen, 80. hamarkadako krisialdiak. Inbertsioak asko murriztu izanak, produktuaren dibertsifikazioak eta beste arrazoi batzuk enpresa handi hauen eta hauentzako lanean ziharduten tailer txikien azkena ekarri zuten.

Dudarik ez da azken urteetako aldaketek indartu egin dutela sektorea, errotu egin dute industria eta dibertsifikatu zerbitzuen sektoreak ere gora egin duelarik. Honi guztiari gehitu behar zaizkio herriaren azken aldiaren eraiki diren azpiegitura berriak, eraiki diren etxebizitzak, aisiguneak, ibaiaren erabateko birsorkuntza, etab. Herriak hobera egin du nabarmen eta horrek bertan bizi direnen bizitza kalitatea hobetzea ekarriko du, gure txoko maite hau aukera eta etorkizun oparoko herri bihurtuz.

HERRITARREN HARRERA BULEGOA

Herritarrei harrera egin eta informazioa ematen diegu.

- Tramite edota gestioei buruzko informazioa.
- Eskaerak egiten dituzten pertsonak, dagozkion sailetara bideratu

Dokumentuen sarreren eta irteeren Erregistroa eramaten dugu.

Biztanleen udal-errola kudeatzen dugu.

- Erroldako altak eta bajak
- Aldaketak
- Erroldatze ziurtagiriak
- Inskripzio ziurtagiriak (lehen bizikidetzako ziurtagiri bezala ezagutzen zirenak)
- Erroldarekin zerikusirik duten beste gestio batzuk

Soraluzen bizi nahi duen edonorentzat ezinbestekoa da erroldatzea Osasun txartela eskatu, gizarte zerbitzuen laguntza eskatzeko, eskolatzeko, etab.

ADI: Europako Erkidegoko ez diren eta iraupen luzeko egoitza-baimenik ez duten herritarrek bi urtero berriro beharko dute Udal erroldan izen ematea.

Herritarrei begirako ordutegia:
Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara

Soraluzeko Udala
Santa Ana kalea, 1
943 75 30 43
udala@soraluze.eus

HIZKUNTZA

Euskal Autonomi Erkidegoan euskara eta gaztelania dira hizkuntza ofizialak eta beste hizkuntza askorekin batera bizi dira Soraluzen.

Euskara Euskal Herriko berezko eta bertako hizkuntza da. Euskal Herria, hots euskararen herria, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Beherea, Nafarroa Garaia eta Zuberoa probintziak osatzen dute. Euskara egoera gutxiagotuan dagoen arren normalizazio bidean da gaur egun, herritar antolatuek eta erakundeek egindako lan eskergari esker.

Euskarak Euskal Herria du bizitoki bakarra. Munduko hizkuntza aniztasuna zaintzeko bertakoa zaindu behar dugu. Hizkuntzek berebiziko garrantzia dute kulturaren oro har, herri izaeran, nortasunean, herritarren arteko

kohesioan; lanerako, ikasketetarako, bizitza sozialerako garrantzitsua da.

Euskara kohesio eta komunikazio hizkuntza da, euskarak batzen gaitu, euskarak aberastuko zaitu. Era berean, herritarren arteko berdintasuna bermatzeko euskara ikastea garrantzitsua da. Euskararen alde egiteko modu eraginkorrena hitz egitea da eta horretarako ikastea ezinbestekoa. Euskara ikasiz gero zuk irabaziko duzu, guztiok irabaziko dugu, euskarak irabaziko du.

Soraluze herri euskalduna da, euskaraz badakitenak eta nahiko ondo ulertzen dutenak kontuan hartuta, bost lagunetik ia lau euskal hiztunak dira.

Hizkuntza Politikaren Zerbitzua

Euskararen sustapena eta normalizazioa helburu duten hainbat programa garatzen ditu, herri-bizitzan euskara arlo guztietan normaltasunez erabil dadin.

Horien artean: herritarrentzako euskara ikasteko diru laguntzak, merkatariari eta enpresei itzulpenak egin eta hizkuntza-

aholkularitza ematea, errotulazioak euskaraz jartzeko diru laguntzak ematea, euskarari buruzko ikerketak bultzatzea, euskarazko sorkuntza bultzatzea, etab.

Udaletxea, Santa Ana kalea, 1
943 75 30 43
euskara@soraluze.eus

Euskara ikasteko aukerak

Soraluzeko Udalak diru-laguntzak ematen dizkie euskara ikasteko egiten dituzten herritarrei. Soraluzen erroldatua egotea eta ikastaroan asistentzia gutxienezko bat izatea dira bete behar diren baldintzak.

Bi baldintza horiek betez gero, Udalak matrikula prezioaren %100 eta %50 bitartean lagunduko du diruz, eskatzailearen diru sarreren kopuruaren arabera. Informazio gehiago Hizkuntza Politikaren Zerbitzuan.

AEK euskaltegia

Euskara irakaskuntzan diharduen erakundea da, bertan maila guztietako ikastaroak topatuko dituzu, bai aurrez aurrekoak bai autoikaskuntzakoak ere.

Balategieta kalea 2
943 75 14 34
soraluze@aek.eus

AUZOKO (Hizkuntza harrera programa)

Euskararekin lehen harremana izan dezazun AUZOKO izeneko programa prestatu dugu. Auzoko hizkuntza harrerarako egitasmoa da. Bertan, zure moduan dauden beste pertsona batzuekin batera, eta euskaraz dakiten herritar batzuen laguntzarekin, euskarazko lehen hitzak ikasi ahal izango dituzu modu

dibertigarrian, astean behin egiten ditugun saioetan.

Pil-Pilean Euskaltzaleen Elkarte
Errabal kalea 15, 1
943 75 13 04
auzoko@pilpilean.eus


Bestelako hizkuntzak ikasteko aukera

Helduen Heziketa Iraunkorrerako ikastetxeak, euskara, gaztelania eta ingelesa ikasteko aukera eskaintzen du ikasturtean zehar eta

18 urtetik gorakoentzat. Informazio gehiago Hezkuntza atalean.

HEZKUNTZA

Euskal Herrian hezkuntza eskubide bat da eta 16 urte bitarte nahitaezkoa. Ondorengo eskeman hezkuntza sistemaren funtzionamendua eta aukerak islatzen dira.



Ikastetxeak

Soraluzeko haurreskola

Haur hezkuntza I

943 75 13 32

soraluze.soraluze@haurreskolak.eus

Plaentxi Herri Ikastetxea

Haur hezkuntza II eta Lehen Hezkuntza

Estaziño kalea, 9

943 75 19 37

012970aa@hezkuntza.net

Soraluze BHI

Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa

Frontoi Kalea 3

943 75 23 65

012946aa@hezkuntza.net

Helduen heziketa

Helduen heziketa iraunkor zentroak 18 urte baino gehiago duten herritarrentzat formazio egitarau zabala eskaintzen du: Atzeritarrentzako gaztelera, bigarren mailako hezkuntza, ingelesa, frantsesa, informatika, etab). Izen-ematea irailean izaten ohi da.

Balategieta kalea, 18 behea

943 75 30 17

012266aa@hezkuntza.net

Musika eskola

Bost urtetik aurrera eta adin mugarik gabe, musikaren munduan barneratzeko aukera ematen dizugu.

Frontoi kalea, 1

943 75 15 44

soraluzemusika@gmail.com

KULTURA

Kulturak dinamikoak dira, kultur adierazleek aldaketak izaten dituzte beren funtzio soziala beteko badute. Kultur adierazle bereziak ditugu Euskal Herrian etengabeko aldaketan; Bertsolaritza, antzerkia, zinea, literatura, musika, dantza, artea, ikus-entzunezkoa, teknologia berriak etab.

Kultura inbertsioa da, norbanakoaren eraikuntzarako, herria eraikitzeko, kohesio sozialerako; kulturak egiten gaitu herri. Kultur ekintzetan parte hartzeak, herri bizitzan parte hartzea dakar, herritarren arteko harremanak sustatzen ditu, herritarren elkar ezagutza bultzatzen du elkarren aitortzarako bidean. Beraz badakizu, parte hartu!

Jaiak

Santiago eta Santa Anak

Uztailaren 25 eta 26a dituzte egun nagusi. Udal eta herritarren parte hartzearen bidez egitarau parte hartzaile, inklusibo, parekide, euskaldun eta anitza antolatzen da

Andramarixak

Abuztuaren 15, 16 eta 17an. Herriko zaindari Andre Maria Jasokundekoaren eta San Rokeren omenezkoak. Herriko lehengo festa nagusiak ziren. Aspaldi handiko ohiturari jarraiki, izen bereko ermitatik herrira prozesioan eramaten da San Roke abuztuaren 16an.

Gaztañerre Azoka

Gaztañerre Azoka azaroko bigarren larunbatean ospatzen da. Egun honetan baserriko produktuen azoka egiten da. Herriko baserriar eta artisauek, urtean zehar ekoizten dituzten produktu eta animalien erakustoki paregabea. Sorluzeko koadrila desberdinak batzen dituen jai egun handienetakoa bilakatu delarik.

Auzoetako jaiak

- Ezozia: Ekaina
- San Andres eta Txurruka: Uztaila
- Irure: Abuztua
- San Martzial: Iraila



Kultura zerbitzua

Zerbitzuaren helburu nagusiak kultur ondarea zaintzea, babestea, zaharbertitza, baloratzea eta hedatzea eta arteen eremuko sorrera, ekoizpena eta zabalkundea dira, hainbat alorretan: literatura, ahozko tradizioa, musika, antzerkia, dantza, ikusmen arteak eta eskulangintza.

Soraluzeko Udala

Santa Ana kalea, 1

943 75 30 43

euskara@soraluze.eus

Liburutegia

Udal liburutegia adin guztietako pertsoneri zuzendutako zerbitzu publikoa da. Liburu, aldizkari, DVD eta CD mailegua, irakurketa gela, hemeroteca eta internet eta WIFI zerbitzua eskaintzen dizugu. Gure zerbitzuez baliatzeko beharrezkoa den erabiltzaile karneta liburutegian bertan atera daiteke doan.

Baltegieta kalea, 2

943 75 20 74

liburutegiasoraluze@gmail.com

Ordutegia:

Astelehenak: 16:30-19:30

Astearte, asteazken eta ostegunak:

11:00-13:00 eta 16:30-19:30

Ostiralak: 16:00-19:00

Udaran: 10:00-13:00

Ikasgela

Bakarka ikasteko gela, 24 pertsonentzako edukiera eta wifi-zerbitzuarekin. Egunero dago zabalik, goizeko 8etatik gaueko 10etara. Erabili ahal izateko beharrezkoa da aurrez udaletxean izena ematea.

Baltegieta kalea, 18-behea

Antzokia

Areto balioanitza, antzerki, zine eta dantza ikuskizunetarako ez ezik bilera, hitzaldi eta antzerakoak burutzeko prestatua.

Udalaz gainera, irabazi asmorik gabeko edozein elkartek dauka bertan ekintzak egiteko aukera, aurrez dagokion eskaera eginda.

Arane kiroldegiko 2. solairua

Baltegieta kalea, 2

KIROLA

Kirol saila

Gure helburua, bizitza kalitatea hobetzea ahalbidetuko duen kirol ekipamenduen eta jardueren eskaintza egitea da. Era berean, kirol jarduera anitzak sustatzeko, parte hartzea oinarri hartuta, herriari begirako kirol proposamen irekiak egin eta garatzen ditugu. Eskola kirolari buruzko informazioa ere hemen jasoko duzue:

Arane Kiroldegia
943 75 24 66
kirola@soraluze.eus

Ordutegia

Astelehenetik ostiralera: 09:00- 13:00

Arane Kiroldegia



Soraluzeko udal kiroldegi publikoa da. Urteko edo urte erdiko abonua eginda, kiroldegiko sarrera doan da (igerilekua, dutxak, rokodromoa, gimnasioa) eta kirol jardueretan eta alokairuetan deskontuak daude; unean-uneke sarrera ere erosi daiteke.

Ekintza eta ikastaro ezberdinak burutzen dira heldu zein umeentzat: igeriketa, zumba, spinning eta pilates besteak beste.

Kiroldegiak eta igerilekuak ordutegia zabala dute aste osoan zehar.

Baltegieta kalea, 2
943 75 24 66

Ezozki Futbol Zelaia



Belar artifizialeko udal zelaia da. Aldagelak eta taberna ere badu. Sora F.C. Elkartea arduratzen da Futbol Zelaiaren kudeaketaz. Bertan egiten dira herriko futbol partiduak, maila eta txapelketa guztietakoak.

Futbol zelaia alokatu daiteke, horretarako idatzi: kirola@soraluze.eus

Ezozia Auzoa, 6

HAUR ETA GAZTEAK

Haurren eta gazteen zerbitzua

Zerbitzuaren helburu nagusia herriko haur, nerabe eta gazteei beren haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan egoki garatzeko eta gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea ematea da, jarrera eta jokabide proaktibo eta, jakina, hurbileko batetik.

Zerbitzuak:

- Informazioa: Haurrentzat eta gaztearentzat interesgarriak diren gai ei edo baliabideei buruzko datu baliagarriak ematea.
- Orientazioa: Alternatibak identifikatzen eta erabakiak hartzen ikas dezaten.
- Aisi hezitzailea: Jolas-ekintzen bitartez, bizitzarako gaitasunak, jarrerak eta balioak lortzea.

Soraluzeko Udala
Santa Ana kalea, 1
943 75 30 43
euskara@soraluze.eus

Ludoteka

4-10 urte bitarteko haurrei zuzendutako aisialdian oinarritutako heziketa eskaintzen dugu. Balio hezitzaileak ardatz harturik eramaten ditugu aurrera programaketak. Bertan egiten diren ekintza jostagarrien bitartez laguntasuna, berdintasuna, autonomia, hezkidetzeta, euskararen erabilera eta euskararekiko motibazioa lantzen dira.

Irailtik ekaina bitartean dago zabalik, astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 16:30etatik 19:30eak arte. Gabonetan, Udaberrian eta Udaran ekintza bereziak burutzen dira.

Soraluzeko Udalak %100 arteko diru-laguntzak ematen ditu zerbitzuaren matrikula ordaintzeko.

Baltegieta kalea, 2
943 25 75 23
ludoteka@soraluze.eus

Gaztelekua

10-16 urte bitarteko gaztetxoentzako bideratutako zerbitzua da. Hezkuntza ez-formaletik abiatutako aisialdi eskaintza euskalduna burutzen dugu, beti ere gazteekin lana eginaz eta gazteek dituzten problematikak ardatz hartuta.

Urritik ekaina bitartean arratsaldeko 17:00etatik 19:00ak arte dago irekita ostiraletan astean zehar eta asteburuetan 17:00etatik 20:00ak arte. Gabonetan, Udaberrian eta Udaran ekintza bereziak burutzen dira.

Soraluzeko Udalak %100 arteko diru-laguntzak ematen ditu zerbitzuaren matrikula ordaintzeko.

Baltegieta kalea, 2
688 740 289
gaztelekua@soraluze.eus

GIZARTE BALIABIDEAK

Soraluzeko Udaleko Oinarrizko Gizarte zerbitzuek herritarren bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin eskaintzen dute zerbitzua. Eginkizun nagusia Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema Publikoak artatu ahal dituen premia sozialak detektatzea eta erantzutea da.

Oinarrizko Gizarte zerbitzuen bitartez ondorengo prestazioak eskaintzen dira:

- Adineko pertsonak: Etxez etxeko laguntza zerbitzua, Tele-asistentzia zerbitzua, Eguneko zentroa, Itxaropena Jubilatuen Etxea.
- Mendekotasuna: Ezgaitasun edo/eta mendekotasun balorazioa, mendekotasun egoerekin erlasionatutako diru laguntzak eta laguntza teknikoak.
- Desgaitasuna: desgaitasun balorazioen izapidea, desgaitasun egoerekin erlasionatutako diru laguntzak, laguntza teknikoak, lan eta okupazio eskaerak, desgaitasun edo mobilidade arazoak dituztenentzat aparkaleku txartela tramitatzea.
- Prestazio ekonomikoak: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) eskatzeko laguntza DBEa hileror daintzen den Gobernuko diru-laguntza bat da, baliabide ekonomiko nahikoa ez duten pertsonen eta familiei oinarrizko beharrak estaltzen laguntzeko. Baldintza jakin batzuk betetzen dituzten pertsonentzat da: pentsiodunak, lanik ez duten pertsonak, baliabide gutxi dituzten langileak, bestelako pentsio batzuen onuradunak, bizileku-baimenik ez duten atzerritarrak eta abar izan daitezke.
- Gizarte Larrialdietarako laguntza eskaerak, Eusko Jaurlaritzako ez aldizkako eta finalistak dira, behar-beharrezkoak diren gastuak ordaintzeko, alokairua, ura, argia, etab. nahiko baliabiderik ez dutenentzako dira.
- Etorkinak: etorkinei eta interesa duen edonori informazioa eta orientazioa.
- Genero indarkeria: Berdintasun arloarekin elkarlanean, genero indarkeria kasuetan aholkularitza eta laguntza, aholkularitza juridikoa, laguntza psikologikoa, babes etxea, etab.
- Familiak: Arrisku edo babesgabetasun egoeran dauden adin txikikoen antzematea, balorazioa eta esku-hartzea, banaketa prozesuentzako aholkularitza, Eusko Jaurlaritzako seme-alaben jaiotza edo adopzioagatik diru laguntzen inguruko informazioa, Familia Ugarien liburua .
- Elikagaien Bankuko banaketaren kudeaketa.
- Udaleko Bono Sozialen kudeaketa.

Prestazioak jaso ahal izateko Soraluzen erroldatuta egon behar zara eta alde zuzenetik hitzordua eskatu behar duzu.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

Santa Ana kalea, 3
943 75 00 56/ 943 75 00 54

gizarte@soraluze.eus
gizartezer@soraluze.eus

Orduetgia: 09:00etatik 13:00etara

Adineko Pertsonentzako Eguneko Zentrua

Mendekotasun egoeran dauden pertsona nagusiak egunean zehar behar dituzten arreta eta errehabilitazioa jasotzeko laguntza errekurtsua.

Estaziño kalea, 9
943 75 18 11

N^a Señora de la Merced Egoitza

Gai eta lagundutako pazienteentzako 43 plazako egoitza.

Atxuri kalea, 6
943 75 11 36

Itxaropena Jubilatuen Etxea

Espazio honek, 3. adineko pertsonen elkargune izateaz gain, hainbat zerbitzu eta ekintza eskaintzen ditu.

Etxaburueta, 5
943 75 23 30

ETXEBIZITZA

Etxebizitza lortzeko aukera ezberdinak daude, erosi edo alokatu daiteke, kontratuen baldintza eta ereduak behar izatekotan Eusko Jaurlaritzako **Etxebide** edo **Alokabide** zerbitzu publikora jo dezakezu.

Titulartasunaren arabera etxebizitza librea, babestua edo publikoa izan daiteke. Etxebizitza babestu edo publikoen kasuan Eusko Jaurlaritzako Etxebiden jaso dezakezu informazioa, baita etxebizitzak erosi, birgaitu edo alokatu ahal izateko ematen dituzten diru-laguntzaen informazioa ere.

Soraluzeko Udalak 5 etxebizitza ditu alokairu sozialean emateko eta Udalak zehaztutako irizpideen arabera esleitzen dira.

Etxebide

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Delegazioa
Andia, 13
20004 Donostia
943 02 28 10
www.etxebide.euskadi.eus

Alokabide

Errotaburu Paseabidea 1, 7. solairua
20018 Donostia
944 04 47 08 (alde zuzeneko hitzordua)
www.alokabide.euskadi.eus

BERDINTASUNA

Berdintasun zerbitzuaren helburu orokorra emakume eta gizonen artean bizitzako arlo guztietan dauden desberdintasunei aurre egitea eta sexuen arteko berdintasuna sustatzea da, aniztasuna kontuan hartuz.

Helburu hau lortzeko honako ekimenak burutzen ditugu, besteak beste:

- Udaleko politika eta ekintzetan genero ikuspegia txertatu
- Berdintasun, indarkeri matxista eta sexualitate inguruan dauden eskubideen, zerbitzuen, baliabideen, laguntzaren inguruko orientazioa eta/edo informazioa eskaini.
- Emakumeen norbanakoaren, taldearen eta gizartearen ahalduntzeari zuzendutako aldizkako ikastaro, tailer, hitzaldi..., ezberdinak eskaini Soraluzeko emakumeen parte hartze sozio-politiko indartzeko eta areagotzeko.
- Ikastetxeetan, pertsonal tekniko eta politikoetan, elkarteetan, udaleko eragileetan, eta Soraluzeko herritar guztietan errespetua, zaintzaren etika, berdintasuna, eta elkartasuna bultzatzen dituzten balioak bultzatu formazio saio eta/edo sentsibilizazio kanpaina ezberdinen bitartez .
- Emakumeen aurkako indarkeri matxista eta jarrera diskriminatzaileak ekidin ahal izateko sentsibilizazio kanpainak
- Genero indarkeriaren eta sexuaren biktima diren emakumeei arreta hobea eman erakundeen arteko Soraluzeko protokoloaren bitartez.

Berdintasun zerbitzua

Soraluzeko Udala

Santa Ana kalea, 1

943 75 30 43

berdintasuna@soraluze.eus

Orduetgia: ostegunetan 10:00etatik 16:00etara

Tratu txarren biktimentzako arreta telefonoa

Laguntza emozionala, informazio eta aholkularitza eskaintzen die tratu txarren biktima diren emakumeei.

Doakoa eta isilpekoa da, 24 orduko atentzioa eskaintzen du 55 hizkuntzetan.

900 84 01 11

OSASUNA

Ohiko osasun zerbitzuak erabili ahal izateko Osasun Txartel Indibiduala (O.T.I.) egin behar duzu, herriko osasun zentroan, horretarako herrian eroldaturik egon behar zara.

Soraluzeko Osasun zentrotan medikuek eta erizainek prebentzioa eta gaixoen segimendua egiten dugu eta laguntza ematen diegu, atentzio espezializatuarekin koordinatzen gara, eta Administrazio-izapide guztiak zentroan egiten dira.

Soraluzeko Osasun Zentrua

Soraluzeko Osasun zentroan, medikuntza orokorra, pediatria, ginekologia eta erizaintza zerbitzuak eskaintzen dira.

Orduetgia: 08:00-15:00.

Aldez aurreko hitzordua behar da telefonoz edo Osakidetza web gunearen bitartez:

www.osakidetza.euskadi.eus

Kalebarren 13

943 75 23 00

Larrialdiak

Larrialdiak Elgoibarko osasun zentroan edo Mendaroko ospitalean artatzen dira. Larrialdietako laguntza medikoa edozein pertsonak jaso dezake, Osasun Txartel Indibidualik (O.T.I.) ez badu ere.

Elgoibarko osasun zentroa

Astelehenetik ostiralera: 17:00-24:00.

Larunbat, igande eta jaiegunetan: 8:00-00:00.

Bernardo Ezenarro 13

943 03 26 10

Mendaro ospitalea

Egunero 00:00-08:00. Hitzordua eskatzeko deitu.

Mendarozabal auzoa, z/g.

943 03 28 94

ENPLEGUA

Lanbide

Lanbidek lana bilatzeko prozesuan dauden herritarrei laguntza eta orientazioa eskaintzen die. Bertan, lan eskaintzak, formazio eskaintza eta lan orientazioa eskaintzen dute. Informazio gehiago: www.lanbide.euskadi.eus

Lanbide Elgoibar

Gabriel Krutzelaegi, 8
945 160 600 eta 630 305 452
elgoibar@lanbide.eus

Lanbide Eibar

Bitor Sarasketa, 9
945 160 600
eibar@lanbide.eus

LAN ESKUBIDEAK

Lan harremanetan zein kontratuan ezohikotzat eta arrarotzat har litekeen edozein gorabehera (bidegabeko kaleratzea, soldata diskriminazioa, istripu arriskua...). Sindikatuen jakinean jar daiteke:

Sindikatuak

Langileek beraien defentsarako sortutako elkarteak.

ELA Eibar

Bidebarrieta 30, behea 1
943 82 04 42

UGT Eibar:

Isasi 2, 1
943 82 07 82

LAB Eibar

Bidebarrieta 10, 1
943 82 04 89

CCOO Eibar:

Ifar Kale 1, behea 3
943 20 84 35

GARRAIOA

Autobusa

Gipuzkoako eskualde guztietan eskaintzen du zerbitzua Lurrealde busek, Gipuzkoako herriak elkarren artean lotuz. Horrez gain, Gipuzkoako hainbat gune herrialdez kanpoko zenbaitekin ere lotzen ditu: Bilborekin, Gasteizekin, Durangorekin eta abar.

Soraluzetik pasatzen dituen autobusen inguruko informazioa Lurrealde busek web gunean topatuko duzu.

Txartel bakarra

Lurrealde busek osatzen duten garraio enpresa zerbitzu guztietan erabili ahal den Txartel bakarra egin dezakezu eta deskontu bereziak eskaintzen ditu. Txartel ezberdinak daude egoeraren arabera (haurrak, gazteak, adinekoak, ezinduek, soziala). Soraluzen hainbat tokitan eskatu eta deskargatu dezakezu txartela.

Informazio gehiago Soraluzeko Udalean edo Lurrealde busek topatuko duzu.

900 300 340

lurrealdebus@lurrealdebus.eus

www.lurrealdebus.eus

Taxia

Miguel Ángel Avellaneda
607 220 808

taxiavellaneda@gmail.com

HERRITARREN SEGURTASUNA ETA JUSTIZIA

Udaltzaingoa

Beste batzuen artean honako zerbitzuak eskaintzen ditugu: Herri barruan trafikoa seinalezatzea, ordenatu eta zuzentzea, sorospena ematea istripu edo katastrofeetan, espazio publikoak zaintzea, gatazka pribatuen konponbidean laguntzea hala eskatzen denean...

Errabal kalea, 17 behea
943 75 30 24
udaltzaingoa@soraluze.eus

Ertzaintza (Bergara)

Ibargarai Hiribidea, 56
943 53 47 20

Larrialdietarako telefonoa: 112

Larrialdi kasuetan 112 doako telefonora deitu behar da. Kasuaren arabera bertatik abisatuko dute edo telefono deia bideratuko dute poliziarri, anbulantziari, suhiltzaileei, edo dagokionari.

Bake epaitegia

Erregistro zibilaz arduratzen da (jaiotzak, ezkontzak, heriotzak) eta zitazioak, jakinarazpenak, errekerimenduak, etab. egiten ditu.
Ordutegia: astearte, ostegun eta ostiraletan
9:00etatik 14:00etara

Santa Ana kalea, 1
943 75 19 89

DEBABARRENEKO MANKOMUNITATEA

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatea Mallabia, Ermua, Eibar, Soraluze, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutriku udalerrien elkarteak osatzen du.

1990. urteaz geroztik, papera eta kartoia, ontziak eta beira biltzen ditu, eta 1994az geroztik eskualdean dauden bost garbiguneak kudeatzen ditu. Igandeetan salbu, gainontzeko egunetan zabalik daude garbiguneak, astean zehar goizeko 9:00etatik arratsaldeko 6etara eta, larunbatetan 9etatik 12:50ak arte.

Traste zaharrak jasotzeko zerbitzua

Soraluzeren kasuan traste zaharrak ostegunetan atera behar dira, gaueko 8:30etik 9:30era. Aurrez, baina, mankomunitatera deitu behar da (943 700 799) trasteak non utziko diren adieraziz. Zerbitzua dohaineko da.

Egiguretarren, 2 behea
Eibar
943 700 799
Fax: 943 200 798
debabarrena@debabarrena.eus

PARTE HARTZEA

Elkarteak eta bertan parte hartzen duten herritarrak, gizartearen garapenerako ezinbestekoak dira. Dauden beharrei aurre egiten dietelako eta herritarren parte hartze eskubidea bermatzen dutelako. Elkarteetan parte hartuz, herritarrek aktibo bilakatzen dira, ideiak ematen, arazoei konponbideak proposatzen, jarduerak antolatzen, sormena bultzatzen, azken finean herriaren garapenean laguntzen.


Soraluzen elkartegintza indartsu eta zabala dago, esparru ezberdin askotan lan egiten dutenak: kultura, euskara, kirola, hezkuntza, aisialdia, giza eskubideak eta ongizatea, etab. Parte hartzearen kultura oso berea du Soraluzek. Horren erakusgarri dira adibidez, dauden Kultur talde anitzak zein urtean zehar antolatzen diren jarduera kopurua. Herriko elkarten ekimenez kultur ekintza ugari bideratzen dira. Edozein gairen inguruan erraz biltzen den herria da Soraluze.

Elkarte guztiak irekiak daude, edonor bertan parte hartzeko. Hemendik animatzen zaitugu Soraluze hobe bat egiteko bidean elkarteek egiten duten lanera batzeko edo eta herrirako egiten dituzten jardueretan parte hartzeko.

Soraluzeko **gida komertzialean** topatu ahalko dituzu Soraluzen lan egiten duten elkarten kontaktua eta lan esparrua:
www.plaentxia.eus/gida

MAPA

- 1 Udaletxea**
Santa Ana kalea, 1
- 2 Euskaltegia**
Baltegieta kalea, 2
- 3 Haur eskola**
Frontoi kalea, 1
- 4 Plaentxi Herri Ikastetxea**
Estaziño kalea, 9
- 5 Soraluze DBH**
Frontoi kalea, 3
- 6 Helduen Heziketa Iraunkor Zentrua**
Baltegieta kalea, 18 behea
- 7 Musika Eskola**
Frontoi kalea, 1
- 8 Liburutegia**
Baltegieta kalea, 2
- 9 Herri Antzokia**
Baltegieta kalea, 2
- 10 Arane Kiroldegia**
Baltegieta kalea, 9
- 11 Ezozi Futbol zelaia**
Ezozia auzoa, 6
- 12 Ludoteka eta Gaztelekua**
Baltegieta kalea, 2
- 13 Osasun Zentrua**
Kalebarren, 13
- 14 Adineko Pertsonentzako Eguneko Zentrua**
Estaziño kalea, 9
- 15 Nuestra Señora de la Merced Egoitza**
Atxuri kalea, 6
- 16 Itxaropena Jubilatuen Etxea**
Etxaburueta, 5
- 17 Udaltzaingoa**
Errabal kalea, 17 behea
- 18 Bake Epaitegia**
Santa Ana kalea, 1



Diseinua: Pil-Pilean Euskaltzaleen Elkartea
Azaleko eta agurreko argazkiak: Kontrargi argazki kolektiboa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

Giza Eskubide, Bizikidetzeta
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Diputación Foral
de Gipuzkoa



**ORAIN
GIPUZKOA**



**SORALUZeko
UDALA**

Santa Ana kalea, 1 · 20590
943 75 30 43